

16. BERTOKO ZUHAITZEN HAZI-BANAKETA (1998-2013)

Datorren asteburuan, azaroaren 1, 2, eta 3an, Haritzalde Naturzaleen Elkartek bertako zuhaitzen hazi-banaketa burutuko du Donostian eta Lasarten. 16 urte beteko ditu ekintza xume horrek. 16 urte zuhaitzen aldeko jarrerak lantzen eta bertako landarediarekiko herritarron sensibilizazioa bultzatzen.

Bertoko zuhaitzak aldarrikatzen ditugu, bertoko eta berezko basoak, habitat naturalak kontserbazio egoera egoki eta onean, biodibertsitatea aldarrikatzen dugu, gure ondare naturala defendatzen dugu.

Helburu nagusia sensibilizazioa da, den-denok egin baitezakegu zerbait. Zuhaitz baten hazia, ezkurra kasu, zein txikia den eta zer zuhaitz ederra izan daiteken, baina horretarako zenbat denbora pasako da? Asko. Etxeko lorontzi batean jarritako hazia urte betean landaretxo egiten da. Prozesu polita bezain mantsoa. Jendea konturatzen bada, eta berak ereindako hazia, zaindutako eta mendian landatutako zuhaitza maite badu eta babesten badu, zuhaitz-zale berri bat izango dugu.

Esan bezala, biodibertsitatea aldarrikatzen dugu, aitortzen zaizkion hiru mailetan, kontserbatu nahi dugulako: habitat naturalak (espezieen gainetiko maila), espezieak (bertakoak, bakoitza dagokion tokian), baina baita espezie bakoitzak duen barne dibertsitate genetikoa (espezieen azpitiko maila). Hortaz, berebiziko garrantzia du bertoko espeziea izateaz gain bertako hazia ere izatea, hau da, zonaldekoa. Eskatzen ditugu tokian tokiko mintegiak eta Erakunde publikoei, batez ere Diputazioei, horiek bultzatzea mendi publikoetan, hots, Jaizkibelgoa Jaizkibelen eta Aiako Harrikoa hantxe bertan, edo behintzat, tokian tokiko hazia (edo ingurukoa) erabiltzea landaketa guzti-guztietan (baita partikularretan ere).

Aipaturiko xedearekin aurten 4 espezieetako zuhaitz-haziak (pagoa, haritza, astigar zuria eta lizarra) banatuko ditugu, ingurukoak denak eta horrela azalduko diegu herritarrei. Haziak debalde ematen ditugu. **15 urte hauek datu oso interesgarriak utzi dizkigute:**

- **100.000tik gora hazi banaturik.**
- **8 espezie:** haritza, ametza, erkametza, artea, pagoa, lizarra, astigar zuri, gaztainondoa.
- **10.000 herritarrei banaturik**
- **120 haritzaldekide** eta bolondresek parte hartu dute.

Aurtengo zitak: **Azaroaren 1ean eta 2an Donostian**

(Euririk ez bada **Kontxako 1.** arrapalan eta euritsua egonez gero **Gipuzkoa plazan**)

Azaroaren 3an, Lasarte-Orian. Okendo plazan.

10:30etatik-19:30etara

Harremanetarako: **609 420 438** eta naturzale@haritzalde.org

www.haritzalde.org

16º REPARTO DE SEMILLAS AUTOCTONAS (1998-2013)

Este fin de semana, 1,2, y 3 de noviembre, la Asociación Naturalista **Haritzalde repartirá gratuitamente semillas de árboles autóctonos en las calles de Donostia y Lasarte. 16 años** trabajando a favor del arbolado e **impulsando la sensibilización social hacia los árboles autóctonos y los hábitats naturales.**

Reivindicamos los árboles autóctonos, los bosques autóctonos y naturales, los potenciales de cada sitio, los hábitats naturales en buen estado de conservación, **reivindicamos la biodiversidad**, defendemos nuestro patrimonio natural.

El objetivo de la acción es la sensibilización, todos podemos hacer algo por pequeño que parezca el gesto. Una semilla es pequeña, pero qué hermoso árbol puede llegar a ser, eso sí, necesitará mucho, mucho, tiempo. Si sembrando la semilla en casa somos capaces de valorar eso y hacemos nuestra la pequeña planta, habremos logrado la implicación personal y habrá un nuevo defensor de los árboles.

Como ya hemos comentado, reivindicamos la biodiversidad, pero a los tres niveles que la componen: los hábitats naturales (nivel supraespecífico), las propias especies (autéctonas y cada una en su sitio), y la diversidad genética de cada especie (las diferentes poblaciones de las especies con su acervo genético). De ahí la enorme importancia de que además de especie autóctona, la semilla o la planta sean del entorno cercano. Aprovechamos para pedir a la administración pública, principalmente a las Diputaciones, la creación de viveros in situ, de repoblar con árboles de semilla del entorno, incluyendo los propietarios particulares.

Con los objetivos expuestos, este año vamos a repartir semillas de 4 especies autóctonas (haya, roble, falso plátano y fresno), recogidas en el entorno y con la intención de que los árboles sean plantados en los alrededores. **Estos 15 años nos han dado datos interesantes:**

- Cerca de **100.000 semillas repartidas.**
- **8 especies:** roble, melojo, quejigo, encina, haya, fresno, falso plátano y castaño.
- **Repartidas a más de 10.000 personas.**
- **Han colaborado 120 socios y voluntarios.**

La cita: 1 y 2 de noviembre en Donostia

(si no llueve en la 1ª Rampa de la Concha, y si está lluvioso en la plaza de Gipuzkoa)

3 de noviembre en Lasarte-Oria. En la plaza Okendo.

De 10:30 a 19:30